

# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua bideragarri egiteko baliabideak behar beharrezkoak dira. Hauek gabe gure zerbitzua aurrera eramatea ezinezkoa izango litzateke. Guk hiru ataletan banatuko ditugu: baliabide fisikoak, intelektualak eta finantza-baliabideak.

Hasteko finantza-baliabideei buruz hitz egingo dugu. Negozio batekin hasteko hasiera batean diru kantitate bat behar da, edukiko ditugun gastuak asetu al izateko. Horregatik, zerbitzua martxan jarri baino lehenago taldeko partaide bakoitzak 500€ jarriko ditugu, honela guztira 1.500€ izango ditugu. Diru honekin materiala erosi, eta ganbara edo almazena alokatuko dugu.



Baliabide fisikoei erreparatuz, hauek beharrezkoak dira lehiaketa egiterako orduan, ariketak egiteko materiala behar dugulako. Materiala lortzeko bi modu edukiko ditugu. Alde batetik, udaletxeak material batzuk utziko dizkigu, eta beste aldetik guk gainontzekoak erosiko edo etxetik eramango ditugu. Oraintxe ikusten duzuen zerrendan daude beharrezko materialak.

UDALETXEAK	GUK (BATZUK EROSI BESTEAK ETXETIK)
-Aretoa -Mikrofonoak -Mahaiak -Arbela -Tizak	-Koka-kola latak -Plastikozko edalontziak -Koilarak -Arrautza egosiak -Puxikak

Udaletxeen aldetik aretoa oinarrizkoa eta baliabide garrantzitsuena izango da, gure proiektuaren euskarria baita. Ondoren besteak gure aurkezpena aurrera eramateko balioko digute. Gure aldetik jartzen ditugun materialik gabe ezingo lirateke jolasak bideratu, horregatik dira ezinbestekoak.



Azkenik funtsezko baliabide intelektualak zeintzuk diren definituko ditugu. Horretarako, proiektua osatzen dugun bakoitzaren indarguneak adieraziko ditugu. Taldekide bakoitzak dituen baliabide intelektual hauei esker zenbait zeregin gure kabuz egitea bideragarri egingo dugu, horrela gure kabuz proiektuari bultzada bat ematea lortuko genuke.

Irudimena oinarrizkoa izango da jokoak asmatzerako garaian, hauek dibertigarriak eta originalak izan behar direlako. Carmen izugarri gustatzen zaio bere bi anaiekin jolasten ibiltzea. Oso ondo pasatzeaz gain bere irudimena martxan jartzen du jolas asko asmatzen dituztelako errepikakorrak izan ez daitezen. Beraz esan daiteke sormen handiko pertsona dela.

Saioa oso pertsona lasaia eta kalkulatzailea da. Beti gustatu izan zaio gauzak txukun eta bere tokian mantentzea horregatik laguntza handiko pertsona izango da enpresako zenbait gauza kudeatzerako orduan.

Garaziri beti gustatu izan zaio jende berria ezagutu eta horiekin hitz egitea beraz oso pertsona ireki eta alai dela esan daiteke. Horregatik aukera ezin hobea da udaletxeen aurrean hitz egin eta lehiaketaren aurkezpena egiteko.

Hirurok uda honetan zehar zenbait ume zaintzen aritu gara dirua lortzeko. Nahiko pertsona lasaiak eta enpatikoak garenez oso ondo etorriko zaigu umeekin interaktuatzerako garaian daukagun izaera eta lortutako esperientzia.